

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Bake epaile kargua eta haren ordezkoren kargua betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzak bake epaile titularraren eta haren ordezkoren karguak lau urtez beteko dituzten pertsonak izendatzeko proposamena egingo diola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salari.

Legeak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete behar dira prozeduran parte hartzeko:

* Adinez nagusia izatea.

* Espainiako naziotasuna izatea.

* Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikulua eta 389. 397. artikulua eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Izendapen horretan interesa dutenek udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera, alkate-lehendakariari zuzendua; horretarako, hogeit hamar egun baliadun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia.

2. Errolda ziurtagiria.

3. Zigor aurrekariaren ziurtagiria.

4. Zinpeko adierazpena, honako hauek jasotzen dituen:

a) Ez dela dolozko delituengatik kondenatua izan edo, hala badagokio, errehabilitazioa lortu duela.

b) Ez dagoela dolozko delituengatik prozesatuta edo inputatuta.

c) Eskubide zibil guztien jabe dela.

d) Ez dagoela fisikoki edo psikikoki ezindurik epaile eginkizunetarako.

e) Ez dagoela Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389. 397. artikuluetan eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikuluan xedatutako ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren baten eraginpean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2026ko maiatzaren 20a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA